

# CONCURSO DE FOTOGRAFÍA

## BASES DEL CONCURSO



### 1. Entitate antolatzailea.

Argazki lehiaketa hau Altsasuko Dendarien Elkartek antolatu du. Elkartek G31493398 ZIF zenbakia eta Iortia plaza 11.31800 Altsasu helbidea dauzka.

### 2. Gaia.

Zenbait kontzeptutan oinarrituko da: Altsasuko bizimodua eta hiri paisaia

### 3. Parte-hartzaileak.

18 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute.

Lehiaketan ezin dezakete parte hartu elkartutako establezimenduen titularrek, ez eta kudeatzaileek ere.

### 4. Argazkiek bete beharreko baldintzak.

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez ere BOST argazki aurkez ditzake (zuri-beltzekoak nahiz kolorekoak).

Argazkiak orijinalak eta argitaratu gabeak izango dira eta askeak nahiz elkarri lotuak izan daitezke.

Onartu egingo dira argazkiaren kalitatea hobetzeko egindako ukitu digitalak (distira, tonua, kontrastea...). Aldiz, ez dira onartuko ez fottomuntaiak, ez argazki ukituak, baldin eta mezu edo irudi orijinala aldatu bada teknika horren bidez.

Argazkien tamaina 20 x 30 cm.-koa izango da.

## 5. Nola aurkeztu.

Argazkiak Asensio Moda establezimenduan aurkeztuko dira (Gartzia Ximenez 28), denden ordutegian (10:00-13:00 eta 17:00-20:00).

Argazkiak aurkezteko epea maiatzaren 21ean amaituko da, 20:00etan.

Argazkiak kartoizko marko zuri baten gainean aurkeztuko dira. Kartoizko markoa liburudenda batean erosi daiteke eta 30 x 40 cm-ko neurria izango du eta 2 mm.-ko lodiera.

Markoaren atzeko aldean honakoak agertuko dira: argazkiaren titulua, non egin den eta egilearen izengoitia.

Argazki bakoitzarekin batera kartazalal bat auzeratu beharko da eta kartazalean, kartoizko markoan bezala, datu hauek agertu beharko dira: argazkiaren titulua, non egin den eta egilearen goitizena. Kartazalean Cd bat sartuko da argazkiarekin (JPG formatuan) eta egilearen identifikazioarekin, 6. oinarrian adierazitakoari jarraikiz.

Formatu digitaleko argazkiaren gutxieneko bereizmena 300 pixelekoa izango da.

## 6. Identifikazioa.

Lan bakoitzarekin batera, kartazal bat aurkeztu beharko da non datu hauek agertu beharko diren: argazkiaren titulua, non egin den eta egilearen goitizena. Kartazalaren barruan lehen aipatutako fitxategi digitala sartuko da, bai eta datu hauek ere:

- Lanaren titulua
- Non egin den.
- Egilearen izena eta abizenak.
- Jaiotze-data.
- Helbidea, posta-kodea eta herria.
- Harremanetarako telefonoa.

Aurretik aipatutako datuak ezinbestekoak dira. Aukeran, argazkiaren deskribapen labur bat eta harremanetan jartzeko mezu elektronikoa sartu daitezke.

## 7. Sariak.

Egile bakoitzak ezin du sari bat baino gehiago eskuratu.

Lehen saria: 500 euro eta diploma

Bigarren saria: 250 euro eta diploma

Parte-hartzaile bakoitzak sari bakar bat eskuratu ahal izango du.

#### 8. Epaimahaia.

Epaimahaia honako hauek osatuko dute: Nafarroako Merkatarien Federazioko ordezkari bat, Altsasuko Udaleko ordezkari bat eta Altsasuko Merkatarien Elkarteko ordezkari bat.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da eta edozein sari hutsik gera daiteke, epaimahaiak hala erabakiz gero.

#### 9. Sariak ematea.

Sariak maiatzaren 29an banatuko dira.

#### 10. Lanen jabetza eta erabilera.

Aurkeztutako lanak Altsasuko Merkatarien Elkartearen jabetzara pasatuko dira. Entitate honek eskubidea izango du lan horiek erabili, kopiatu, erakutsi eta zabaltzeko (egilearen izena jarriko du erabiltzen dituen guztietan). Egileek Altsasuko Merkatarien Elkarteari ematen dizkiote lanen jabetza eta eskubide guztiak.

#### 11. Beste batzuk.

Altsasuko Merkatarien Elkartearen ardura da oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztiaren gainean ebaztea.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

Informazio gehiago behar izanez gero, deitu 948239908 telefono zenbakira edo mezu elektronikoa bidali [comerciodealsasua@gmail.com](mailto:comerciodealsasua@gmail.com) posta helbidera.